

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ENPRESAKO ARLOEN IKUSKAPENA	Iraupena	70
		Baldintzatua	
Kodea	UF0318		
Lanbide-arloa	ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA		
Lanbide-eremua	Administrazioa eta ikuskapena		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ikuskapenerako kontabilitate-kudeaketa eta kudeaketa administratiboa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Auditoria	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ikuskapenaren plangintza.	Iraupena	50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1099_3 IKUSKARITZA-ZERBITZU BATEN KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA EGITEA gaitasun-ataleko LB2, LB3, LB4 eta LB5 lanbide-burutzapenekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Ikuskapen-prozedurak aplikatzea lanaren garapena interpretatuz eta dokumentatuz eta dagokion aplikazio informatikoa erabiliz.
- EI1.1 Kontu bateko saldoa abiapuntu hartuta, hura sortu duen transakzioa eta transakzioaren euskarri-dokumentua identifikatzen dira.
- EI1.2 Ondare-elementu jakin bat izanik, haren existentzia, balorazio zuzena eta erregistroa egiaztatzea, orokorrean onartzen diren kontabilitate-printzipioen arabera.
- EI1.3 Zirkularizazio-prozedurak deskribatzea.
- EI1.4 Eragiketen etenaren xedea azaltzea.
- EI1.5 Merkataritza-sozietate baten egoera ekonomiko eta finantzarioa islatzen duen kontabilitate-informazioa emanda, hauxe eskatzen da:
- Enpresa simulatua ikuskatzeko prestatutako programak dituen ikuskapen-proben izaera azaltzea.
 - Edukia azaltzea eta, behar bada, prozedura hau behar duten arloetako zirkularizazio-gutunak prestatzea.
 - Gutun edo zirkular bidez egiaztatuko diren saldoen laginak hautatzea, eta laginetan lortutako emaitzak analizatutako populazio osora estrapolatzea.
 - Lortutako erantzunak enpresak emandako informazioarekin egiaztatzea, eta, behar bada, saldoa bateratzea.
 - Euskarri-dokumentazioan oinarrituta, erosketa, salmenta eta izakinen eragiketen etenak egitea.
 - Ikuskapen-programan aurreikusitako dokumentu-probak egiteko behar den euskarri-dokumentazioa identifikatzea.
 - Ikuskapen-programan prozedura hau egitea aurreikusia duten arloetan, ebidentzia lortzeko aukera ematen duten dokumentu-probak egitea.
 - Egindako ikuskapen-proben emaitzak, ateratako ondorioak eta proposatutako doikuntzak eta birsailkatzeak dagozkien lan-orrietan dokumentatzea.
 - Lanean egindako prozeduren oinarri diren orriak zuzen erreferentziatzea eta artxibatzea.
- EI1.6 Ikuskapen bat egitean artxiboak eta informazioa bilatzeko, kokatzeko eta antolatzeako sistema eragileak zer tresna dituen azaltzea.
- EI1.7 Ikuskapen-prozesu bat egingo zaion merkataritza-sozietate baten egoera ekonomiko eta finantzarioa islatzen duen kontabilitate-informazio beharrezko eta nahikoa emanda, hauxe eskatzen da:
- Egin beharreko ikuskapena planifikatzeko behar den informazioa biltzeko eta antolatzeako dauden tresna informatikoak azaltzea.
 - Behar diren ikuskapen-txostenak egitea, dagozkien tresna informatikoak erabiliz.
 - Egindako ikuskapenaren emaitzak aurkeztea, tresna informatiko egokienak erabiliz.
- A2: Ikuskapen-lanaren gorabeheri buruzko prozedurak eta emaitzak analizatzea eta aplikatzea.
- EI2.1 Gerentziaren adierazpen-gutunaren edukia eta xedea azaltzea.
- EI2.2 Abokatu eta aholkularien eskumenei buruzko adierazpen-gutunaren edukia eta xedea azaltzea.
- EI2.3 Ikuskapen-txosten mota guztiak gorabeheren arabera azaltzea.
- EI2.4 Aurreko proposamenaren alderdiak eta birsailkatzeak biltzen dituen lanaren laburpen-orri bat egitea.
- EI2.5 Ikuskapenaren emaitzari buruzko txostena prestatzea.
- EI2.6 Merkataritza-erregistroan lortutako txosten errealak analizatzea, eta txosten-motatik eta baldin badaude, haren salbuespenetatik aurreikus daitezkeen ondorioak kalkulatzea.
- EI2.7 Gerentziari bidalitako barne-kontrolari buruzko txostenaren edukia eta xedea azaltzea.

Edukiak

1. Aktiboa ikuskatzea.

- Ibilgetu materiala.
 - Kontuak. Barne-kontrola.
 - Ikuskapenaren helburuak. Ikuskapen-prozedurak. Arrisku-puntuak.
 - Kontabilitateko printzipioak eta arauak.
- Ibilgetu ukiezina.
 - Kontuak. Barne-kontrola.
 - Ikuskapenaren helburuak. Ikuskapen-prozedurak. Arrisku-puntuak.
 - Kontabilitateko printzipioak eta arauak.
- Aktibo finantzarioak. Berezitasunak. Taldeak. Kontuak. Barne-kontrola.
 - Ikuskapenaren helburuak. Ikuskapen-prozedurak. Arrisku-puntuak.
 - Kontabilitateko printzipioak eta arauak.
- Izakinak, bezeroak, kobratu beharreko kontuak eta salmentak. Kontuak.
 - Barne-kontrola. Ikuskapenaren helburuak. Ikuskapen-prozedurak. Arrisku-puntuak.
 - Kontabilitateko printzipioak eta arauak.

2. Ondare garbiaren ikuskapena

- Fondo propioak.
 - Kontuak.
 - Barne-kontrola.
 - Ikuskapenaren helburuak.
 - Ikuskapen-prozedurak.
 - Arrisku-puntuak.
 - Kontabilitateko printzipioak eta arauak.
- Balio-aldaketengatiko doikuntzak.
 - Balorazio-irizpideak.
 - Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak.
 - Kontuak.
 - Barne-kontrola.
 - Ikuskapenaren helburuak.
 - Ikuskapen-prozedurak.
 - Arrisku-puntuak.
 - Kontabilitateko printzipioak eta arauak.

3. Pasiboa ikuskatzea

- Hornitzaileak, ordaindu beharreko kontuak eta erosketak.
 - Kontuak.
 - Barne-kontrola.
 - Ikuskapenaren helburuak.
 - Ikuskapen-prozedurak.
 - Arrisku-puntuak.
 - Kontabilitateko printzipioak eta arauak.
- Pasibo finantzarioak.
 - Berezitasunak. Taldeak.
 - Kontuak.
 - Barne-kontrola.
 - Ikuskapenaren helburuak.
 - Ikuskapen-prozedurak.
 - Arrisku-puntuak.
 - Kontabilitateko printzipioak eta arauak.
- Hornidurak eta kontingentziak.
 - Kontuak.
 - Barne-kontrola.
 - Ikuskapenaren helburuak.
 - Ikuskapen-prozedurak.
 - Arrisku-puntuak.
 - Kontabilitateko printzipioak eta arauak.

4. Zerga-ikuskapena

- Zerga-ikuskapena.
 - Kontuak.
 - Barne-kontrola.
 - Ikuskapenaren helburuak.
 - Ikuskapen-prozedurak.
 - Arrisku-puntuak.
 - Kontabilitateko printzipioak eta arauak.

5. Memoria, eskudiruaren fluxuen egoera eta ondare garbiko aldaketen egoera ikuskatzea.

- Memoria. Kontzeptua eta ezaugarriak. Edukia. Itxieraren ondorengo gertakariak.
- Eskudiruaren fluxuen egoera. Kontzeptua eta ezaugarriak. Edukia.
- Ondare garbiko aldaketen egoera. Kontzeptua eta ezaugarriak. Edukia. Analisia. Ondorioak.

6. Aplikazio informatikoak ikuskapen-prozesuan

- Ikuskapen-dokumentuen ereduak. Sortzea eta konfiguratzea. Edukia.
- Ikuskapen-txostena aurkeztea. Sortzea eta konfiguratzea. Edukia.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0317 Ikuskapenaren plangintza

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ikuskapenerako kontabilitate-kudeaketa eta kudeaketa administratiboa